

Edukia

ERREGAI ALTERNATIBOekin DABILTZAN IBILGAILU BERRIAK BILBOKO AUTOTAXI ZERBITZURAKO EROSTEKO DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA. 2024 2

1. ARTIKULUA. XEDEA.....	2
2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA.....	2
3. ARTIKULUA. ONURADUNAK	3
4. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.....	3
5. ARTIKULUA. AURREKONTU-KREDITUAK.....	4
6. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK	4
7. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN.....	4
8. ARTIKULUA. ESKAERAK.....	5
9. ARTIKULUA. LAGUNTZAK EMATEKO ETA EBAZTEKO PROZEDURA.....	7
10. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA.....	8
11. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.....	9
12. ARTIKULUA. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNAK.	9
13. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA	9

**ERREGAI ALTERNATIBOekin DABILTzan IBILGAILU BERRIAK BILBOKO
AUTOTAXI ZERBITZURAKO EROSTEKO DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA.
2024**

1. ARTIKULUA. XEDEA.

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak, Garraioen esparruan, "erregai alternatiboekin dabiltnan ibilgailu berriak Bilboko auto-taxi zerbitzurako erosteko" dirulaguntzen lerrorako deialdia egin du.

Deialdiaren xedea da erregai alternatiboekin dabiltnan ibilgailu berriak erosteko dirulaguntzetarako deialdia egitea; ibilgailuek lehen matrikulaziokoak izan behar dute, eta errekuntzako motorrekin dabiltnan beste ibilgailu batzuk ordezteko ematen dira dirulaguntzak, hartara airearen kalitatea hobetzearen, zaratazko kutsadura gutxitzearen eta berotegi-efektua duten gasen isurpena eta energia-kontsumoa gutxitzearen.

Alde horretatik, bat etorritik "Energiaren, Meatzeen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak ibilgailu hibrido entxufaezinak 4/2019 Legearen barruan aintzat ez hartu izanari buruz emandako ohar argigarriarekin (4/2019 Legea, 2021eko martxoaren 1ekoa, EAEko energia-jasangarritasunari buruzkoa)", adituko da erregai alternatiboa erabiltzen dutela ibilgailu % 100 elektrikoek, hibrido entxufagarriek edo hidrogenoa, bioerregaiak edo gas naturala (Gas Natural Konprimitua, Gas Natural Likidua, Petrolioaren Gas Likidotua) kontsumitzen dutenek.

2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetako dirulaguntzak arau hauen menpe daude: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Lege Orokorra, eta lege hori garatzeko uztailaren 887/2006 Errege Dekretu bidez onetsitako Erregelamendua; eta Bilboko Udalak eta zuzenbide publikoko bere entitate eta organismoek ematen dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak, Udalbatzaren 2016ko ekainaren ordenantza orokorraren bidez onetsiak —Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2016ko uztailaren alean (138. zenbakian)—."

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Bilboko Udalaren taxi-lizentziaren jabe diren pertsona fisikoak edo Bilboko taxi-elkarteak, baldin eta 2023. eta 2024. urteetan zerbitzuan jarri badute ibilgailu bat % 100 elektrikoa, hibrido entxufagarria, hidrogenozkoa, bioerregaikoa edo gas naturalekoa (GNK, GNL, GLP), lizentziari atxikitako ibilgailu gisa, Erregelamendu honen 9. artikuluan ezarritako lehentasunari jarraikiz, eta betiere:

- a) b) Taxiei nahitaez egin beharreko udal ikuskapenak egin badituzte.
- b) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikularen 2. eta 3. apartatuetan ezarritako debekuren bat ez badute.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzen onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Onuradunek bereziki egiaztatu behar dute ez daukatela zorrik zergen arloan eta Gizarte Segurantzari.

Dirulaguntzaren ordainketa ez da gauzatuko izapidetzen ari den egunean betebeharrak horiek egunean ez badaude.

Gainera, deialdi honen onuradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte bereziki:

- Ibilgailu hori atxiki eta gutxienez 4 urtean eduki beharko dute Bilboko taxi-zerbitzuan. Ibilgailua taxi-zerbitzutik kentzen bada gutxienezko epea igaro barik, Udalari itzuli beharko zaio dirulaguntzaren zati proportzionala, adierazitako gutxienezko epea bete arteko tarteari dagokiona. Salbuespena izango da ibilgailua Bilboko beste taxi-baimen baten titularrari eskualdatu eta ibilgailuak zerbitzua ematen jarraitzen badu 4 urteko epea bete arte. Era berean, salbuetsita dago zerbitzua ematen ari zela ezbehar oso justifikatu bat gertatu ondoren erretiratu bada ibilgailua, eta, betiere lizentziari atxikitzen zaion ibilgailu berriak ezbeharra izan duenaren baldintza berak betetzen baditu.

- Ibilgailuen jasagarritasunaren inguruan Mugikortasun eta Jasagarritasun Sailak antolatzen dituen ikastaroetara, formazio-saioetara eta ekitaldietara joan beharko dute, hala eskatzen bazaie.

Aurreko baldintzak bete ezean, gerta liteke onuradunak laguntzaren zati proportzionala itzuli behar izatea, hau da, ez-betetzearen eta ibilgailua mantentzeko epearen artean geratzen dena.

5. ARTIKULUA. AURREKONTU-KREDITUAK

1.- Deialdian eskaintzen diren dirulaguntzak Bilboko Udalak 2024 ekitaldirako onetsitako aurrekontuaren 2024 21010 44110 7719900, PEP 2024/00108 partidaren kontura finantzatzen dira.

2.- Deialdi honetara bideratutako zenbatekoa EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EUROKOA (150.000€) da.

3.- Aurrekontu-zuzkidura handitu ahalko da, aurkeztutako eskabideak ikusita, deialdi berririk egin barik.

6. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

1.- Eskabide bakoitzeko, bost mila (5.000) euroko laguntza emango da, salbu eta ibilgailu % 100 elektrikoen kasuan, hamar mila (10.000) eurokoa izango baita eskabide bakoitzeko.

7. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN

1.- Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere eman dituen Administrazioa edo ente publiko edo pribatua, dela Estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioarteko organismoetako.

2.- Nolanahi ere, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu diruz lagundutako jardunaren kostua, nahiz berak bakarrik, nahiz beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera. Beraz, onuradunek Bilboko Udalari jakinarazi behar diote, eta, hala badagokio, itzuli, udalak emandako

laguntzaren zatia, baldin eta laguntza horrek, emandako edo emateko dauden beste batzuei gehituta (BEZik gabe), ibilgailuaren kostua gainditzen badu.

3.- ibilgailu egokitua bada, eta Sail honek egokitze horretarako emandako dirulaguntzak jaso baditu, dirulaguntza biak izango dira bateragarriak ibilgailu horrentzako.

8. ARTIKULUA. ESKAERAK

1. Deialdi honi buruzko informazio eta dokumentazio guztia eskura egongo da Udalaren webgunean (www.bilbao.eus), Bilboko Udalaren gardentasun atarian eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan.

Dirulaguntzak eskuratu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoei eskabidea (I. eranskina) aurkeztu behar dute agiri hauekin batera:

- a) Eskatzailearen NANaren edo IFZaren kopia, elkarte bada.
- b) Ibilgailua erosi izanaren jatorrizko faktura, eskatzailearen izenean, honako hauek zehaztuta:
 - a. Matrikula edo bastidore zenbakia.
 - b. Ibilgailuaren marka.
 - c. Modeloa.
- c) Ordainagiria osorik ordaindu izanaren egiaztagiriak.
- d) II. eranskina beteta eta sinatuta. Erantzukizunpeko adierazpena:
 - Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua onuradun izateko ezartzen dituen debekuetako bat ere ez duela adierazten duena.
 - Oinarri hauetako 7. artikuluan laguntza horien bateragarritasunari buruz dioena ezagutzen duela adierazten duena.
 - Dirulaguntzaren xede den ibilgailua Bilboko auto-taxi zerbitzura gutxienez 4 (lau) urtez atxikitzeko konpromisoa adierazten duena.
 - Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak eskatzen dion formazio espezifikoan parte hartu duela adierazten duena.
- e) III. eranskina beteta eta sinatuta: "Hartzekodunen fitxa"
- f) Bankuko kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
- g) Bilboko Udalak informazio hori eska edo kontsulta dezan nahi ez badu, ziurtagiri hauek aurkeztu behar ditu:
 - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian ordainketak egunean izatea.

- Udal eta Foru Ogasunean ordainketak egunean izatea.

2.- Eskariak Bilboko Udalaren Erregistroan aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein eratara bidal daitezke.

3.- Epeak:

- Hasiera: Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da.
- Amaiera: laguntza jasotzeko eskaerak aurkezteko epea 2024ko maiatzaren 31n amaituko da. Aurrekontu-partida eskuragarria handituz gero, eskaerak aurkezteko bigarren epe bat irekiko da, 2024ko urriaren 18ra arte.

9. ARTIKULUA. LAGUNTZAK EMATEKO ETA EBAZTEKO PROZEDURA

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, garaiz eta behar bezala aurkeztutakoei hurrengo puntuetan adierazitako lehentasuna emango zaie, eta, horien barruan, lehenik eta behin, ibilgailua zerbitzuan jarri den eguna (*), bigarrenik, fakturaren eguna, eta hirugarrenik, laguntza-eskabidea erregistratu den eguna eta ordua:

1. Lizentziaren titularren eskaerak, 2023an behar bezala eta garaiz aurkeztu zutenak «Erregai alternatiboekin dabiltzan ibilgailu berriak Bilboko auto-taxi zerbitzurako erosteko dirulaguntzak» jasotzeko eskaera eta, deialdiko baldintzak bete arren, dirulaguntza barik geratu zirenak, kreditu faltagatik (uste dugu 3 direla, bi 10.000koak eta eta bat 5.000koa; guztira, 25.000).
2. 2024an ibilgailua zerbitzuan jarri duten Bilboko taxi-elkarteen edo lizentzien titularren eskabideak.

() Dirulaguntzaren xede den ibilgailua zerbitzuan jartzeko datatzat hartuko da ibilgailua lizentzian sartzeko ikuskapen-aktak duena, aldeko emaitzarekin (Elorrietako ikuskapena).*

2.- Ez dira onartuko laguntzak jasotzeko eskabideak ibilgailu hauetan:

- eskaera egin den egunean zerbitzua ematen ari ez badira.
- kontzeptu beragatik laguntza jaso badute.
- 2023. urtea baino lehenago hasi badira zerbitzua ematen.
- propultsio-erregaia eraldatu badute.

3.- Dirulaguntzen deialdi honetara bideratutako aurrekontu-kreditua 6. artikuluan ezarritakoa izango da.

4.- Prozeduraren instrukzioa egiteko organo eskuduna Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Garraio Zuzendariordezari atxikitako teknikariak izango dira.

Organo izapidegile horrek ebazpen-proposamena egingo du, honako hauek egiaztatu ondoren:

- Onuradunak eskatu zaion dokumentazio guztia aurkeztu duela.
- Dirulaguntzaren xede den ibilgailuak errekontzako beste ibilgailu bat ordeztan duela.

- Onuraduna egunean dagoela urteko berrikuspen arruntei eta zerbitzua ematearekin lotuta egin zaion beste edozein errekerimendurekin.
- Ibilgailuak zerbitzuan jartzeko aldeko ikuskapen-akten datak.
- Onuradunak egunean dituela tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez duela zergaldian inolako zerga-zehapenik edo -zorrik Udal honekin, salbu eta geroratuta edo zatituta badaude edo haien betearazpena etenda edo *sub iudice* badago.

5.- Gobernu Batzarrak edo horrek eskuordetzen duenak ebatziko du prozedura.

Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea igaro ondoren, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela jo ahalko da.

Eskatutako dirulaguntza onesteko edo ezesteko ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenaren kontra, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da, ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, administrazioarekiko auzien epaitegien artean dagokion hartan, jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko epean.

6.- Izapidetzeko eta ebazteko egintzak jakinarazpen pertsonalaren bidez jakinaraziko dira.

7.- Deialdi honetan onartu diren dirulaguntzen guztirako zenbatekoa txikiagoa bada dirulaguntza hauetarako izendatutako zenbatekoa baino, soberakina Bilboko taxi zerbitzuko ibilgailuak egokitzeko dirulaguntzen deialdiari batuko zaio.

10. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailaren ordezkariak emango du onartutako dirulaguntza ordaintzeko ebazpena, eta onuradunari jakinaraziko zaio; ordainketa egiteko, Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan haren izenean agertzen den kontu korrontean sartuko da dirua."

11. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira ibilgailua erosteko gastuak, BEZa salbu, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 31.8 artikuluan adierazitakoaren arabera.

12. ARTIKULUA. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNAK.

Deialdi honetan zehaztutako obligazioak betetzen ez badira, edo bertan eskatzen diren datuak eta eskakizunak faltsutzen edo ezkutatzen badira, dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, dagozkion atzerapen interesak barne, dirulaguntza jasotzen den unetik aurrera.

13. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Urtea bukatu aurretik, emandako eta ukatutako dirulaguntza guztiak argitaratuko dira udalaren web-orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Era berean, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez ere egingo da dirulaguntzen publizitatea, Dirulaguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.

Bilbon, 2024ko martxoaren 8an.
Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila.